

2018ko azaroaren 5a

BAIONA HIRIAK 2019KO BAIONAKO BESTETAKO AFITXAREN SORTZAILERA XERKATZEN DU

Baiona ez daiteke Baiona bere besta famatuak gabe. 1932az geroz, lau egunez eta bost gauez, belaunaldi guzietako milioi bat bestalier baino gehiago hartzen du. Lurralde honetako kultur nortasunak azkarki markatzen du besta elkartzeko hau, dantza, musika eta kantu tradizionalen bitartez. Zenbait hilabetez Baionako elkarte guziak mobilizatzen dira eta ehunka benebolo mugitzen dira publikoarekin besta sukar hori partekatzeko.

Bakoitzak kausituko du, instant baterako, arratsalde bat edo gaualdi baterako, libertzeko, dantzatzeko eta kantatzeko parada, berotasun eta adiskidetasun giro batean... Bost egun horien magia hau!

**Bestetako afitxak kargu sinboliko azkarra dakar,
Baionarrentzat bezain bat gure bisitarientzat ere.**

**50 urtez, Arnaud Saez Baionar artistak zituen burutzen.
2004az geroz, pertsona ospetsua honen heriotzaren ondoren, afitxa
sortzaile desberdinei proposatua zaie, lehiaketa baten bitartez.**

Ikus hemen iraganeko afitxen bilduma: <http://goo.gl/bxs7jm>

Hautatu orientazioa nola nahikoa izanik ere, Baionako Bestetako mota orotako ADN-a egituratzen duten ikusezko osagai nagusiak agertu behar dira afitxa hauetan.

Behi lasterketak, mutxiko eta dantzaldiak, edota Corsoa, zezenketak edo maskleta, bai eta gaualdi suharreko haurren egunak, hainbat parada jende guziek, gutarikoek eta besteek xuri gorritz jantzirik besta egiteko karrketan, peñetan. Frantzian eta udan hutsegin ezinezko hitzordua bilakatu Baionako bestak.

1/3

Sortzaile grafikoa zara (grafista, argazkilaria, tindatzailea, plastizianoa), **lanbidezkoa edo ikaslea?**

Zuen sormena, Baionako Besten historia eta nortasun balioei kasu egin diezaketzen hurbiltze garaikide batean sartzen dela iruditzen bazaizue, aldi berean neurri unibertsal eta tokiko batean, zuen burua ezagutaraztera gomitatzen zaituztegu. 10 eta 15 arteko sortzaile grafista andana aitzin hautatu nahi dugu Baionako Bestetako kontseilutik kanpoko batzordeari proposatzeko gisan. Honek ondotik, 2019ko Baionako bestetako afitxaren sortzeari ekitera gomitatuko dituen 5 hautatuko ditu.

Irabazleak 4000 € ZGB lortuko ditu; beste 4 sortzaileei, 500 € ZGB emanen zaie.

EGUTEGIA

Zuen aurkezpen txostena igortzeko azken epea **2018ko azaroaren 26 eguerditan da eta bakarrik e-postaz** egin beharko duzue helbide honetara: communication@bayonne.fr.

Baionako Bestetako kontseilutik kanpoko batzordea hortik landa bilduko da 5 sortzaile hautatzeko. 5 sortzaileek haien proposamena lantzeko aukera 2019ko urtarrilaren 28ko eguerdi arte izanen dute, 2019ko Baionako Bestetako afitxari dagokionez.

2019ko otsailan, kontseilu kanpoko batzordeko kideak bilduko dira eskuratu 5 proposamenak preferenziaren arabera sailkatzeko. Bozkatze honek bukaerako emaitzako %50 osatuko dute, 5 egitasmoak publikoari hauta dezan eskainiko diogulako eta horrek notaren %50 osatuko duelako. Publikoak sorkuntza proposamenak ikusten ahalko ditu eta, edo internet bitartez (bayonne.fr edo fetes.bayonne.fr) edo 5 egitasmoak, 2019ko otsailaren 16tik martxoaren 3ra erakusgai jarriak izanen diren Baionako Euskal Museoa bozkatzen ahalko du.

2/3

ZUEN AURKEZPEN TXOSTENA

Italiar moduko A4 7 orrialdeko PDF fitxategi batez osatua izanen da.

Fitxategiaren izena: nom.prenom.pdf

Zola Xuria. Arial tipoa.

Gomendio hauek betetzen ez dituzten fitxategiak ez dira aintzat hartuak izanen.

Page 1

Izena Deitura
Adina
Jarduera nagusia
Posta helbidea
Helbide elektronikoa
Telefonia
Internet gunea (halabeharrez)

Page 2

Izena Deitura

Esaldei batez, zure motibazioa 2019ko
Baionako Bestetako afitxa sortzeko

Pages 3 à pages 7

Izena Deitura

Zuen ekoizpen
grafikoen
ezaugarria den
ikusezko bat
orrialdeka

3/3